



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2024ko uztailaren 31

94. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—11-24/CCO-00018. “Nafarroako Parlamentuaren urteko kontuak, 2023” fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egin (2. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

11-24/CCO-00018. “Nafarroako Parlamentuaren urteko kontuak, 2023” fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egin

2024ko ekainaren 24an eginiko bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarri entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“Nafarroako Parlamentuaren urteko kontuak, 2023” fiskalizazio-txostena egin du.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko

Erregelamenduaren 230. artikuluan ezarritakoarekin bat, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Adieraztea “Nafarroako Parlamentuaren urteko kontuak, 2023” fiskalizazio-txostenaren edukiaren jakinaren gainean dagoela.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2024ko ekainaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

AURKIBIDEA

I. SARRERA	4
II. FISKALIZAZIOAREN HELBURUAK ETA NORAINOKOA	4
III. IRITZIA.....	5
III.1 Finantza-auditoretzako iritzia	5
III.2 Legedi-betetzeari buruzko iritzia	5
IV. IRITZIAREN OINARRIA	5
V. AUDITORETZAKO FUNTSEZKO GAIAK.....	5
VI. NAFARROAKO PARLAMENTUAREN ERANTZUKIZUNA.....	6
VII. NAFARROAKO KONTUEN GANBERAREN ERANTZUKIZUNA.....	6
VIII. AURREKO TXOSTENETAN EMANDAKO GOMENDIOEN JARRAIPENA	7
1. GEHIGARRIA. NAFARROAKO PARLAMENTUAREN 2023KO URTEKO KONTUEN LABURPENA	8
2. GEHIGARRIA. NAFARROAKO PARLAMENTUA	14
3. GEHIGARRIA. ARAU-ESPARRUA.....	15
4. GEHIGARRIA. FISKALIZAZIOKO BESTE OHAR ETA AURKIKUNTZA BATZUK	16
ERANSKINA. NAFARROAKO PARLAMENTUAREN ORGANIGRAMA.....	23

I. SARRERA

Nafarroako Kontuen Ganberak, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak 2024ko martxoaren 18an hartutako erabakia betetze aldera, ganbera bera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearekin eta 2024rako fiskalizazio-programarekin bat, Nafarroako Parlamentuaren (aurrerantzean, Parlamentua) 2023ko ekitaldiari dagokion urteko kontuen aurreproiektua fiskalizatu du.

Azterketa lana 2024ko apirilean eta maiatzean egin du auditoretzako bi teknikarik eta auditore batek osatutako lantalde batek. Kontuen Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administrati-boen lankidetzaz ere izan dute.

Eskerrak ematen dizkiegu Parlamentuko langileei lan hau egiteko eman diguten laguntzagatik.

Txosten honetako datu guztiak eurotan eman dira, biribilduta, zentimorik ez agertzeko. Eman-dako datuek eta ehunekoek beti adierazten dute balio zehatz bakoitza biribilduta, eta ez biribildu-tako datuen batura.

II. Fiskalizazioaren helburuak eta norainokoa

Finantza-egoerari eta legedi-betetzeari buruzko ikuskapen bat egin da Nafarroako Parlamentu-aren 2023ko ekitaldiari dagokion urteko kontuen aurreproiektuari buruz, honako hauei buruzko iri-tzia emateko:

- Ea 2023ko ekitaldiko urteko kontuek, alderdi aipagarri guztietan, irudi zehatza erakusten du-ten Parlamentuak 2023ko abenduaren 31n zituen ondareari eta finantza-egoerari dagokienez, bai eta data horretan amaitutako ekitaldiko emaitza ekonomiko eta aurrekontukoei dagokienez ere, betiere aplikatzekoa den arau-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko eta aurre-kontuen inguruko printzipio eta irizpideei jarraituz.

- Ea 2023ko ekitaldiko urteko kontuetan jasotako jarduerak, aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta informazioa bat datozen, alderdi adierazgarri guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatze-koak zaizkion arauekin.

Nafarroako Parlamentuaren 2023ko urteko kontuak dira fiskalizazioaren norainokoa, eta honako kontabilitateko egoera-orri hauek hartzen dituzte barnean:

- Aurrekontuaren likidazioaren egoera-orria.
- Egoeraren balantzea.
- Emaitza ekonomiko eta ondarekoaren kontua.
- Ondare garbian izandako aldaketen egoera-orria.
- Eskudiru-fluxuen egoera-orria.
- Oroitidazkia.

Parlamentuaren urteko kontuak Nafarroako Parlamentuaren Kontabilitate Planari eta haren erregelamendu ekonomiko finantzarioari jarraituz egiten dira. Kontabilitate Plana Kontabilitate Pu-blikoaren Plan Orokorrari egokituta dago Nafarroako Parlamentuko Mahaiak 2012ko abenduaren 17an hartutako Erabakiaren bidez.

Fiskalizazioaren denbora-norainokoak 2023ko ekitaldia hartzen du, baina beste ekitaldi batzuei buruz ere egin dira behar diren egiaztapenak, ezarritako helburuak hobeki lortzeko.

III. IRITZIA

Nafarroako Kontuen Ganberak, 19/1984 Foru Legeak esleitzen dizkion eskumenak erabiliz, Parlamentuaren urteko kontuen aurreproiektua fiskalizatu du. Honako hauek osatzen dituzte kontu horiek: 2023ko abenduaren 31ko balantzeak, emaitza ekonomiko eta ondarezkoaren kontuak, ondare garbian izandako aldaketen egoera-orriak, eskudiru-fluxuen egoera-orriak, aurrekontuko likidazioaren egoera-orriak eta data horretan amaitutako ekitaldiari dagokion memoriak. Orobat, fiskalizatu du ea Parlamentuak bete duen legedia 2023ko ekitaldian.

III.1 FINANTZA-AUDITORETZAKO IRITZIA

Gure iritziz, 2023ko ekitaldiko urteko kontuen aurreproiektuak irudi zehatza erakusten du alderdi aipagarri guztietan Parlamentuak 2023ko abenduaren 31n zituen ondareari eta finantza-egoerari dagokienez. Halaber, haren emaitza ekonomiko eta aurrekontukoak islatzen ditu, data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkionak, aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideei jarraituz betiere.

III.2 LEGEDI-BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

Gure iritziz, egindako lanaren norainokoa kontuan hartuta, Parlamentuaren 2023ko ekitaldiko finantzen egoera-orrietan jasotako jarduerak, aurrekontu- nahiz finantza-eragiketak eta informazioa bat datoz funts publikoen kudeaketari aplikatzekoa zaion araudiarekin alderdi adierazgarri guztietan.

IV. IRITZIAREN OINARRIA

Kanpo-kontrolako erakunde publikoek erabakitako funtsezko fiskalizazio-printzipioen arabera egin dugu fiskalizazioa, eta, zehazki, finantza-fiskalizazioari buruzko ISSAI-ES 200 arauan eta legedi-betetzearen fiskalizazioari buruzko ISSAI-ES 400 arauan ezarritakoaren arabera; halaber, kanpo-kontrolako organoen fiskalizazio-gida praktikoak (GPF-OCEX) erabili ditugu. Aurrerago deskribatzen dira arau horien indarrez ditugun erantzukizunak, gure txosteneko "Kontuen Ganberaren erantzukizunak" atalean, urtealdi-kontuez eta legedia betetzeari buruzko fiskalizazioaz denaz bezainbatean.

Urtealdi-kontuei eta legedi-betetzeari buruzko gure fiskalizazioan aplikatzekoak diren etikaren eta independentzia-babesaren arloko eskakizunekin bat, entitatearekiko independenteak gara, fiskalizazio publikoko jarduerari buruzko araudiak exijitzen duen bezala.

Gure ustez, lortu dugun auditoretza-ebidentziak oinarri nahikoa eta egokia ematen dio finantzei eta legedi-betetzeari buruzko gure iritziri.

V. AUDITORETZAKO FUNTSEZKO GAIK

Auditoretzako gai giltzarriak dira gure iritzi profesionalaren arabera munta handiena izan dutenak 2023ko urteko kontuez egin dugun fiskalizazioan. Auzi horiek urteko kontuen osotasunari buruzko auditoretzaren testuinguruan eta kontu orokorreari buruzko iritzia taxutzerakoan jorratu ditugu, eta ez dugu bereiz azalduko horien gaineko iritzirik.

Ondorioztatu dugu gure fiskalizazioan ez dagoela jakinarazi beharreko gai giltzarriak.

VI. NAFARROAKO PARLAMENTUAREN ERANTZUKIZUNA

Parlamentuko Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzua urteko kontuen aurreproiektua egiteaz arduratzen da, eta legelari nagusiari aurkezten dio, azken horrek Parlamentuko Mahaiari helarazi eta Eledunen Batzarrak onespena eman diezaion. Aurreproiektu horrek irudi zehatza eman beharko du Parlamentuaren aurrekontu-likidazioari, ondareari, emaitzei eta finantza-egoerari buruz, aplikatzekoa den finantza-informazio publikoko arau-esparruari jarraituz. Halaber, bermatu beharko du aipatu kontuetan islatutako jarduerak, aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta informazioa bat datozela aplikatzekoa den araudiarekin.

Txosten honek aztergai duen urteko kontuen aurreproiektua 2024ko martxoaren 14an egin zuen Nafarroako Parlamentuko Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako zerbitzuburuak, eta 2024ko martxoaren 20an eskuratu zitzaigun.

VII. NAFARROAKO KONTUEN GANBERAREN ERANTZUKIZUNA

Helburutzat dugu arrazoizko ziurtasun bat lortzea, urtealdi-kontuetan, oro har, iruzur edo erroreen ondoriozko akats materialik ez egoteaz, eta kontu horietan islatutako jarduerak, aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta informazioa aplikatu behar den araudiarekin bat etortzeaz, erregularatzen diren fiskalizazioerako gure txostena eman ahal izateko, gure iritzia jasotzen duena.

Arrazoizko ziurtasun hori ziurtasun maila handia da, baina ez du bermatzen kanpo-kontrolako organoei buruzko araudiari jarraikiz egindako fiskalizazio batek beti atzemanen duenik akats material bat edo urraketa muntadun bat, halakorik dagoenean. Akatsak iruzurraren edo erroreen ondorio izan daitezke, edo legezkotasuna ez betetzearen ondorio, eta akats materializat jotzen dira Kontuen Ganbera honen irizpideak aplikatuta, baldin eta zentzuz aurreikusi ahal bada txostenen erabiltzaile diren pertsonen erabaki ekonomikoetan eragina izanen dutela.

Fiskalizazioaren atal gisa, eta kanpo-kontrolako organoen araudiarekin bat etorritik, gure iritzi profesionala aplikatzen dugu eta eszeptizismo profesionaleko jarrerari eusten diogu auditoretza osoan. Gainera:

- Identifikatu eta baloratu egiten ditugu iruzur edo oker baten ondoriozko akats materiala egoteko eta legeak ez betetzeko arriskuak, arrisku horiei erantzuteko auditoretza-prozedurak taxutzen eta aplikatzen ditugu, eta auditoretzako behar adinako eta behar bezalako ebidentzia lortzen dugu gure iritziari oinarri emateko. Iruzurraren ondoriozko akats material edo urraketa bat ez atzemateko arriskua handiagoa da erroreen ondoriozko akats material baten kasuan baino; izan ere, iruzurra dagoenean, tartean izan daitezke kolusioa, faltsutzea, nahitako omisioak, propio eginiko adierazpen okerrak edo barne-kontrolaren saihestea.

- Barne-kontrolari buruz ezagutza muntaduna lortzen dugu fiskalizazioerako, inguruabarren arabera egokiak diren auditoretza-prozedurak diseinatze aldera; ez, ordea, entitatearen barne-kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzi bat emate aldera.

- Ebaluatzen dugu ea aplikatutako kontabilitate-politikak moduzkoak ote diren, ea kontabilitate-estimazioak egokiak diren eta ea egokia den kudeaketa-organoak emandako informazioa.

- Urteko kontuen aurkezpen orokorra, egitura eta edukia ebaluatzen ditugu, emandako informazioa barne, eta aztertzen dugu ea urteko kontuek zehatz azaltzen dituzten transakzioak eta azpian dauden egitateak.

Erakundearen gobernu-organoarekin harremanetan jartzen gara, besteak beste, planifikatutako auditoria-proben norainokoaz eta horiek egiteko uneaz aritzeko, bai eta fiskalizazioaren aurkikuntza esanguratsuez eta fiskalizazioan zehar barne-kontrolari buruz identifikatzen dugun edozein akats adierazgarri ere.

VIII. AURREKO TXOSTENETAN EMANDAKO GOMENDIOEN JARRAIPENA

Aurreko txostenetan jasotako gomendio garrantzitsu hauek bete dira fiskalizatutako ekitaldian:

- *Dagozkion neurriak hartzea Enplegu publikoan aldibaterakotasuna murrizteko presako neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legean aurreikusitakoa betetze aldera.*
- *Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileen plantilla organikoa urtero onestea.*
- *Erantzukizunpeko adierazpenak egiaztatzeko, kontrolatzeko eta ikuskatzeko ahalmenak erabiltzea, Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 69. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.*
 - *Gomendatzen dugu, talde parlamentarioei ematen zaizkien dirulaguntzen izaera finalista dela-eta, azter dadila alderdi politikoeikiko lankidetzaren harremanak hitzarmenen bidez formalizatzeko aukera; hitzarmen horietan jasoko lirateke alderdi politikoei taldeei ematen ahal dizkieten zerbitzuak, beren balorazio ekonomikoarekin, bai eta zerbitzu horien kostua konpentsatzeko taldeek urtero egin behar duten ekarpenaren zenbatekoa ere.*¹
 - *Administrazio-klausula partikularren agirietan aipatzea zer agiri aurkeztu beharko dituen adjudikazio-hartzaile izateko proposatua izanen den pertsonak kontratazio-mahaiek egiaztatu dezaten kontratazio- baldintzak egiazki betetzen dituela.*

Aurreko ekitaldietako txostenetan jasotako gomendio garrantzitsu hauek lehengoan diraute:

- *Nafarroako Parlamentuko plantilla organikoan dauden lanpostu hutsak deialdi publikoaren bidez betetzeko hasitako egintzekin jarraitzea, aplikatu beharreko araudiari jarraikiz lanpostu horiek behin betiko betetzeko.*
- *Espedientean justifikatzea zergatik ez den ezarri exekuzio baldintza berezirik.*

Gainera, finantza-fiskalizazioaren eta legedi-betetzearen fiskalizazioaren emaitza gisa, beste gomendio batzuk jaso dira txosten honen 4. Gehigarrian, beste ohar eta aurkikuntza batzuei buruzkoan.

Javier Marticorena Chapa auditorea arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, indarreko araudiak ezarritako tramiteak bete ondoren.

Iruña, 2024ko ekainaren 20a

Kontuen Ganberako lehendakaria: Ignacio Cabeza del Salvador

¹ 2023ko urrian onetsi zen aldaketa, eta 2024ko urtarilaren 1ean jarri zen indarrean

1. GEHIGARRIA. NAFARROAKO PARLAMENTUAREN 2023KO URTEKO KONTUEN LABURPENA**1.1. 2023KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA***Gastu-aurrekontuaren betetzea*

Gastuak	Hasierako kredituak	Aldaketa	Behin betiko kredituak	Aitortutako betebehargarbiak (ABG)	Betetakoa (%)	Ordainketak
1. Langileria-gastuak	8.820.070	0	8.820.070	8.190.884	93	8.190.825
2. Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea	2.615.695	18.561	2.634.256	1.482.940	56	1.335.825
4. Transferentzia arruntak	3.347.000	15.600	3.362.600	3.180.569	95	3.165.385
5. Kontaketa orokorra eta beste ustekabeko batzuk	155.007	-	155.007	-	-	-
6. Inbertsio errealak	718.010	233.100	951.110	662.274	70	283.865
8. Finantza-aktiboak	57.795	-	57.795	9.566	17	9.566
9. Finantza-pasiboak	6.000	-	6.000	3.022	50	-
Gastuak, guztira	15.719.577	267.262	15.986.839	13.529.255	85	12.985.465

Diru-sarreraren aurrekontuaren betetzea

Diru-sarrerak	Hasierako aurreikuspena	Aldak.	Behin betiko aurreikuspena	AEG	Betetakoa (%)	Kobrantzak
3. Tasak. Prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	2.860	-	2.860	102.597	3.587	102.597
4. Transferentzia arruntak	14.934.902	-	14.934.902	14.934.902	100	14.934.902
5. Ondare-sarrerak	10	-	10	18.355	183.553	18.355
7. Kapital-transferentziak	758.200	-	758.200	758.200	100	758.200
8. Finantza-aktiboak	23.010	267.262	290.272	17.815	6	17.815
9. Finantza-pasiboak	595	-	595	2.423	407	2.423
Diru-sarrerak, guztira	15.719.577	267.262	15.986.839	15.834.292	99	15.834.292

1.2. 2023 EKITALDIKO AURREKONTU-EMAITZA

Kontzeptuak	2022			2023		
	Aitortutako eskubide garbiak	Aitortutako betebehargarbiak	Aurrekontu-emaiza	Aitortutako eskubide garbiak	Aitortutako betebehargarbiak	Aurrekontu-emaiza.
a. Eragiketa arruntak (1. kapitulutik 5.era)	14.223.225	12.263.674	1.959.551	15.055.854	12.854.393	2.201.461
b. Kapital-eragiketak (6. eta 7. kapituluak)	776.205	261.937	514.268	758.200	662.274	95.926
1. Eragiketa ez-finantzarioak guztira (a+b)	14.999.430	12.525.611	2.473.819	15.814.054	13.516.667	2.297.387
c. Finantza-aktiboak (8. kapitulua)	16.468	16.317	151	17.815	9.566	8.249
d. Finantza-pasiboak (9. kapitulua)	3.002	3.600	-598	2.423	3.022	-599
2. Finantza-eragiketak, guztira (c+d)	19.470	19.917	-446	20.238	12.588	7.650
I. Ekitaldiko aurrekontu-emaiza (1+2)	15.018.900	12.545.528	2.473.373	15.834.292	13.529.255	2.305.038
Doikuntzak						
3. Gehitutako kredituak finantzatzeko funtsak			384.857			267.262
4. Ekitaldiko finantzaketa-desbideratze negatiboak			-			-
5. Ekitaldiko finantzaketa-desbideratze positiboak			267.262			185.055
II. Doikuntzak, guztira (3+4-5)			117.596			82.206
Aurrekontu-emaiza doitua (I+II)			2.590.968			2.387.244
Foru Ogasunari Itzultzeko Zenbatekoa			2.590.968			2.387.244

1.3. DIRUZAINZA-GERAKINA 2023KO ABENDUAREN 31N

Osagaiak	2022	2023
1. Funts likidoak	3.763.663	3.691.335
2.(+) Kobratzeko dauden eskubideak	315	-
(+) Aurrekontukoak ez diren eragiketetatik	315	-
3.(-) Ordaintzeko dauden betebeharrak	3.496.716	3.506.279
(+) Ekitaldiko aurrekontutik	341.200	543.790
(+) Aurrekontukoak ez diren eragiketetatik	3.155.516*	2.962.489*
I. Diruzaintza-gerakina, guztira (1+2-3)	267.262	185.055
II. Finantzaketa atxikiaren gaindikina	267.262	185.055
III. Saldo kobragaitzak	-	-
IV. Diruzaintza-gerakin atxikigabea (I-II-III)	-	-

* Barnean hartzen ditu Foru Ogasunari itzuli beharreko funtsak.

1.4. 2023KO ABENDUAREN 31KO BALANTZEA

(Emaiza aplikatu ondoren)

	2022	2023
AKTIBOA, GUZTIRA	18.736.084	18.490.039
A) Aktibo ez-korrontea	14.955.840	14.788.539
I. Ibilgetu ukiezin garbia	138.977	625.394
3. Aplikazio informatikoak	137.486	624.139
2060-2806. Aplikazio informatikoak	137.486	624.139
5. Bestelako ibilgetu ukiezina	1.491	1.255
2090-2809. Bestelako ibilgetu immateriala	1.491	1.255
II. Ibilgetu material garbia	14.803.713	14.152.143
2. Eraikuntzak	11.816.176	11.277.449
2110-2811. Eraikinak eta beste eraikuntza batzuk	11.816.176	11.277.449
5. Bestelako ibilgetu materiala	2.987.537	2.874.694
2140-2814. Makineria eta tresnak	789.174	645.697
2150-2815. Garraio-osagaiak	-	-
2160-2816. Altzariak eta tresneria	14.197	23.698
2170-2817. Informazio-prozesuetako ekipamenduak	274.024	260.258
2190-2819. Bestelako ibilgetu materiala	1.910.142	1.945.040
6. Aribideko ibilgetua	-	-
2340-Aribideko ibilgetua	-	-
V. Epe luzeko finantza-inbertsioak	13.150	11.002
4. Beste finantza-inbertsio batzuk	13.150	11.002
2540. Epe luzeko maileguak	13.150	11.002
B) Aktibo korrontea	3.780.244	3.701.500
III. Zordunak eta kobratzeko dauden beste kontu batzuk	315	-
3. Administrazio publikoak	315	-
4709 – Ogasun Publikoa zordun, kontzeptu fiskalak direla-eta	-	-
4490 – Beste zordun batzuk	315	-
V. Epe laburreko finantza-inbertsioak	16.266	10.166
4. Beste finantza-inbertsio batzuk	16.266	10.166
5440-534. Epe laburreko maileguak, aurrerakinak	16.266	10.166
VII. Dirua eta beste aktibo likido baliokide batzuk	3.763.663	3.691.335
1. Kutxa	1.665	2.850
5700 – Kutxako eskudirua	1.665	2.850
2. Bankuak eta kreditu-erakundeak	3.761.998	3.688.485
5711 – Rural Kutxako kontu korrontea	3.761.998	3.688.485
ORDENA-KONTUAK	16.554	18.843
Abalak eta bermeak	16.554	18.843

	2022	2023
PASIBOA, GUZTIRA	18.736.084	18.490.039
A) Ondare garbia	15.221.851	14.966.841
I. Jarritako ondarea	13.127.974	12.611.936
1000. Ondarea	6.423.689	5.907.651
1001-1070. Atxikipen gisa jasotako ondarea	6.704.285	6.704.285
II. Sortutako ondarea	267.262	185.055
2. Ekitaldiko emaitzak	267.262	185.055
1291. Atxikitako funtsak, aplikatzeko daudenak	267.262	185.055
IV. Emaitzei aplikatzeko zain dauden beste ondare-gehikuntza batzuk	1.826.615	2.169.850
1300. Dirulaguntzak	1.826.615	2.169.850
B) Pasibo ez-korrontea	12.115	12.115
1800. Epe luzeko fidantzak	12.115	12.115
C) Pasibo korrontea	3.502.118	3.511.083
I. Epe laburreko zuzkidurak. Epe laburreko zorrak	-	-
II. Epe laburreko zorrak	5.402	4.803
4. Beste zor batzuk	5.402	4.803
5600. Jasotako epe laburreko fidantzak eta gordailuak	5.402	4.803
IV. Hartzekodunak eta ordainkizun dauden beste kontu batzuk	3.496.716	3.506.279
1. Kudeaketa-eragiketengatiko hartzekodunak	341.200	543.790
4000. Aitortutako betebeharren hartzekodunak, aurtengo aurrekontuan	341.200	543.790
4199 – Beste hartzekodun batzuk	-	-
3. Administrazio publikoak	3.155.516	2.962.489
4750. Ogasun Publikoa hartzekodun, PFEZa dela-eta	430.335	429.552
4751. Ogasun Publikoa hartzekodun, eskubide pasiboak direla-eta	4.422	-
4752. Ogasun Publikoa hartzekodun, erabilera berezia dela-eta	-	-
4760. Ogasuna hartzekodun, kredituen itzulketa dela-eta	2.591.076	2.387.244
4770. Gizarte Segurantza hartzekodun	129.683	145.693
ORDENA-KONTUAK	16.554	18.843
Abalak eta bermeak	16.554	18.843
0570 Abal-emaileak	16.554	18.843

1.5. 2023KO EKONOMIA- ETA ONDARE-EMAITZAREN KONTUA

	2022	2023
2. Jasotako transferentziak eta dirulaguntzak	14.951.503	15.360.999
a) Ekitaldikoak	14.951.503	15.360.999
a.2) Transferentziak	14.951.503	15.360.999
7500. Nafarroako Gobernuaren kapital-transferentziak	816.306	414.965
7510. Nafarroako Gobernuaren transferentzia arruntak	14.135.197	14.934.902
7800. Entitateak bere aktiborako egindako lanak		11.132
6. Kudeaketa arrunteko beste diru-sarrera batzuk	88.028	102.597
7730. Itzulketak	88.015	71.021
7770. Beste diru-sarrera batzuk	-	31.576
7000. Argitalpenak saltzea	14	-
A) Kudeaketa arrunteko diru-sarrerak guztira	15.039.531	15.463.596
8. Langileria-gastuak	7.618.536	8.221.938
a) Soldatak, lansariak eta antzekoak	6.232.191	6.579.131
6400. Soldatak eta lansariak	2.804.792	2.998.265
6401. Behin-behineko langileen soldatak	583.644	604.546
6402. Parlamentarien dietak eta garraioak	11.553	6.763
6410. Funtzionarioen soldatak	2.740.306	2.908.237
6411. Langile kontratatuen soldatak	73.148	39.661
6412. Bestelako dietak eta garraioak	18.748	21.659
b) Gizarte-zamak	1.386.345	1.642.807
6409. Parlamentarien beste gizarte-gastu batzuk	16.132	16.133
6420. Enplegu-emailearen kargura dagoen Gizarte Segurantza	1.330.188	1.488.166
6449. Langileen beste gizarte-gastu batzuk	40.025	138.509
9. Egindako transferentziak eta emandako dirulaguntzak	3.099.440	3.180.569
6500. Transferentzia arruntak	2.836.596	2.951.104
6510-Dirulaguntzak	262.844	229.465
11. Kudeaketa arrunteko beste gastu batzuk	1.545.697	1.451.887
a) Hornidurak eta kanpoko zerbitzuak	1.545.697	1.451.887
c) Beste batzuk		
12. Ibilgetuaren amortizazioa	870.748	882.998
B) Kudeaketa arrunteko gastuak, guztira	13.134.421	13.737.392
I. Kudeaketa arruntaren emaitza (aurrezkie edo desaurrezkie) (A-B)	1.905.109	1.726.204
13. Beste diru-sarrera batzuk		
II. Eragiketa ez-finantzarioen emaitza	1.905.109	1.726.204
15. Diru-sarrera finantzarioak	-	18.355
III. Finantza-eragiketen emaitzak	-	18.355
IV. Ekitaldiko emaitza garbia (aurrezkie edo desaurrezkie) (II+III)	1.905.109	1.744.560

1.6. 2023KO ONDARE GARBIAK IZANDAKO ALDAKETEN EGOERA-ORRIA

	Jarritako ondarea	Sortutako ondarea	Beste ondare- gehikuntza ba- tzuk	Guztira
A. Amaierako ondare garbia, 2022	13.127.974	267.262	1.826.615	15.221.851
B. Kontabilitate-irizpideetan izandako aldatetengatik eta akatsak zuzentzeko egindako doikuntzak	-	-	-	-
C. 2023ko hasierako ondare garbi doitua	13.127.974	267.262	1.826.615	15.221.851
D. 2023ko ondare garbiak izandako aldeak	-516.038	-82.206	343.235	-255.010
Ekitaldian aitortutako diru-sarrerak eta gastuak	44.468	185.055	343.235	572.758
Ondare garbian izandako beste aldaketa batzuk	-560.506	-267.262	-	-827.768
Amaierako ondare garbia, 2023	12.611.936	185.055	2.169.850	14.966.841

1.7. 2023KO ESKUDIRU-FLUXUEN EGOERA-ORRIA. IKUS 2022KO ITXIERA, AURREKO AUDITORETZADUNA

	2022	2023
I. KUDEAKETA-JARDUERETAKO ESKUDIRU-FLUXUAK		
A) Kobrantzak:	15.172.250	15.581.648
2. Jasotako transferentziak eta dirulaguntzak	14.649.465	15.030.828
3. Salmenta garbiak eta zerbitzu-emateak	14	-
5. Kobratutako interesak eta dibidenduak		18.355
6. Beste kobrantza batzuk	522.771	532.464
B) Ordainketak:	14.960.628	16.043.058
7. Langileria-gastuak	7.485.466	8.073.286
8. Egindako transferentziak eta emandako dirulaguntzak	3.074.095	3.165.385
10. Beste kudeaketa-gastu batzuk	1.405.557	1.307.671
13. Beste ordainketa batzuk	2.995.510	3.496.716
Kudeaketa-jarduerengatiko diru-fluxu garbiak (+A-B)	211.622	-461.410
II. INBERTSIO-JARDUERETAKO ESKUDIRU-FLUXUAK		
C) Kobrantzak:	19.470	20.238
3. Inbertsio-jardueretako beste kobrantza batzuk	19.470	20.238
D) Ordainketak:	109.526	293.430
4. Inbertsio errealen erosketa	89.609	283.865
6. Inbertsio-jardueretako beste ordainketa batzuk	19.917	9.566
Inbertsio-jarduerengatiko diru-fluxu garbiak (+C-D)	-90.055	-273.192
III. FINANTZAKETA-JARDUERETAKO ESKUDIRU-FLUXUAK		
E) Ondare-gehikuntzak	261.937	662.274
1300. Finantza-ibilgetua finantzatzeko dirulaguntzak	261.937	662.274
G) Finantza-pasiboen kobrantza	-	-
Finantzaketa-jarduerengatiko eskudiru-fluxu garbiak (+E-G)	261.937	662.274
VI ESKUDIRUAREN ETA HAREN BALIOKIDE DIREN AKTIBO LIKIDOEN IGOERA/JAITSIERA GARBIA EKITALDIAN (I+II+III)	383.503	-72.329
Eskudirua eta haren baliokide diren aktibo likidoak ekitaldiaren hasieran	3.380.160	3.763.663
Eskudirua eta haren baliokide diren aktibo likidoak ekitaldiaren bukaeran	3.763.663	3.691.335

2. GEHIGARRIA. NAFARROAKO PARLAMENTUA

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 11. artikulua arabera, Parlamentuak Nafarroako herria ordezkatzeko du, legegintzarako ahalmena erabiltzeko, Nafarroako aurrekontuak eta kontuak onesten, Foru Diputazioaren jardura bultzatzen eta kontrolatzen, eta ordenamendu juridikoak esleitzen dizkion gainerako eginkizunak betetzen. 50 parlamentari osatzen dute Parlamentua.

2023ko ekainaren 16an, XI. legegintzaldia eratzeko bilkura egin zen zazpi talde politikorekin. Talde horiek 2023ko maiatzaren 28an egindako hauteskundearen emaitza dira, eta honako osaera hau dute, lortutako parlamentari-kopuruari dagokionez:

Alderdiak/koalizioak/elkartek	Parlamentariak
Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioa	15
Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioa	11
EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioa	9
Geroa Bai talde parlamentarioa	7
Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioa	3
Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioa	3
Vox Nafarroa foru parlamentarien elkarte	2
Parlamentariak, guztira	50

Nafarroako Parlamentuaren aurrekontua Nafarroako Aurrekontu Orokorretan sartuta dago, eta haren kontuak Nafarroako kontu orokorren parte bat dira.

2023ko ekitaldia ixtean, honako hauek ziren Nafarroako Parlamentuaren funtsezko datu ekonomikoak eta langile-arlokoak:

	Aitortutako eskubideak	Aitortutako betebeharrak	Langileak, 2023-12-31n
Nafarroako Parlamentua	15.834.292	13.529.255	74

Parlamentuko gobernu-organoak Osoko Bilkura, Mahaia, Eledunen Batzarra eta Batzorde Iraunkorra dira. Txosten honen 1. Eranskinean ageri da Nafarroako Parlamentuaren organigrama.

3. GEHIGARRIA. ARAU-ESPARRUA

Honako hau da Nafarroako Parlamentuari 2023ko ekitaldian aplikatzekoa zaion arau-esparrua:

Estatuko araudia

- 13/1982 Lege Organikoa, abuztuaren 10ekoa, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzkoa.
- 20/2021 Legea, abenduaren 28koa, Enplegu Publikoan dagoen Behin-behinekotasuna Murrizteko Premiazko Neurriena.

Foru araudia

- Apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legea, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzkoa.
- 2/2018 Foru Legea, apirilaren 13koa, Kontratu Publikoei buruzkoa.
- Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren Testu Bategina, Mahaiak 2011ko irailaren 12an hartutako Erabakiaren bidez onetsia.
- Nafarroako Parlamentuko Erregelamendua, Osoko Bilkurak 2023ko martxoaren 16an hartutako Erabakiaren bidez onetsia. ²
- Nafarroako Parlamentuaren erregelamendu ekonomiko-finantzarioa, Parlamentuko Mahaiak 2020ko urtarrilaren 27an hartutako Erabakiaren bidez onetsia.
- Nafarroako Parlamentuaren Kontabilitate Plana, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak 2012ko abenduaren 17an hartutako Erabakiaren bidez Kontabilitate Publikoko Plan Orokorrari egokitua.
- Nafarroako Parlamentuko Administrazioaren Antolaketari buruzko Erregelamendua, Parlamentuko Mahaiak 2021eko uztailaren 26an onetsia.
- Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutua, Parlamentuko Erregelamendu Batzordeak 1991ko martxoaren 20an hartutako Erabakiaren bidez onetsia.
- Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileen aldi baterako kontratazioari buruzko Erregelamendua.
- Parlamentarien ordainsariei buruzko araua, Parlamentuko Batzorde Iraunkorraren Mahaiak 2007ko ekainaren 15ean hartutako Erabakiaren bidez onetsia, eta haren geroko aldaketak.
- Behin-behineko langileen ordainsariei buruzko araua, Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren 2012ko abenduaren 17ko Erabakiaz onetsia.
- Mahaiaren 2019ko irailaren 2ko Erabakia, talde parlamentarioen ordainsariei buruzko arauak onesten dituena, 2023ko urriaren 2an aldatua.
- Nafarroako Parlamentuko administrazio elektronikoaren funtzionamenduari buruzko Erregelamendua, Mahaiak 2023ko urtarrilaren 9an hartutako Erabakiaren bidez onetsia.
- Nafarroako Parlamentuko gardentasunari eta jardueraren gaineko informazio publikoaren eskuragarritasunari buruzko Erregelamendua, Parlamentuko Mahaiak 2023ko urriaren 30ean hartutako Erabakiaren bidez onetsia.

² 2023ko maiatzaren 29an hartu zuen indarra.

4. GEHIGARRIA. FISKALIZAZIOKO BESTE OHAR ETA AURKIKUNTZA BATZUK

Egindako fiskalizazioaren atal gisa, ondoren ohar eta iruzkin batzuk gehitu ditugu, Ganbera honen ustez fiskalizazio-txosten honen hartzaile eta erabiltzaileentzat interesgarri gerta daitezkeenak.

Orobat, gehitu ditugu Ganbera honen ustez Parlamentuaren kudeaketa ekonomiko-administratiboa hobetzeko beharrezkoak diren gomendioak.

4.1. PARLAMENTUAREN AURREKONTUA

Eledunen Batzarrak Nafarroako Parlamentuaren 2023rako aurrekontu-proiektua onetsi zuen 2022ko urrian, zeinak % 5eko igoera ekarri baitzuen 2022ko hasierako aurrekontuarekin alderatuta. Nafarroako Aurrekontu Orokorrak abenduaren 28ko 35/2022 Foru Legearen bidez onetsi ziren, eta horietan sartuta daude Parlamentuaren aurrekontuak, hain zuzen ere.

Parlamentuaren 2023rako hasierako aurrekontuak 15,72 milioi euroko diru-sarrereren eta gastuen aurreikuspen hasierakoak jasotzen zituen.

Gastuetan eta diru-sarreretan goranzko aurrekontu-aldaketa batzuk egin ziren, 0,27 eurokoak –hasierako kredituen ehuneko bi egiten dute–, eta, horien ondorioz, behin betiko gastu eta diru-sarrerak 15,99 milioi eurora goratu ziren.

Aurrekontu-likidazioa

2023an, gastuek 13,5 milioi euro egin zuten, betetze-maila ehuneko 85ekoa eta ordaintze-maila ehuneko 96koa izanik. Gastu horiek 2022koak baino ehuneko zortzi handiagoak izan ziren.

Diru-sarrerei dagokienez, 2023an 15,8 milioiko eskubideak aitortu ziren; bada, betetze-maila ehuneko 99koa izan zen, eta kobratze-maila, ehuneko 100ekoa. Kasu honetan, 2022 ekitaldiarekiko igoera ehuneko bostekoa izan da.

Koadro honetan ageri dira Parlamentuaren gastuen eta diru-sarrereren xedea eta finantzaketa, ehunekotan:

Gastuaren izaera	Ehunekoa	Finantzatze-iturria	Ehunekoa
Langileak	61	Transferentzia arruntak	94
Transferentzia arruntak	23	Kapital-transferentziak	5
Ondasun arruntak eta zerbitzuak	11	Tasak eta prezio publikoak	1
Inbertsio errealak	5		
	100		100

Jarraian, 2022ko eta 2023ko ekitaldietako aurrekontu-likidazioarekin zerikusia duten adierazle batzuen alderaketa erakusten dugu:

Adierazleak	2022	2023	2023/2022 aldea (%)
Aitortutako eskubideak, guztira	15.018.901	15.834.292	5
Aitortutako betebeharrak, guztira	12.545.528	13.529.255	8
Diru-sarrera arruntak (1. kapitulutik 5.era)	14.223.225	15.055.854	6
Funtzionamendu-gastuak (1., 2. eta 4. kapituluak)	12.263.674	12.854.393	5
Kapital bidezko diru-sarrerak (6. eta 7. kapituluak)	776.205	758.200	-2
Kapital-gastuak (6. eta 7. kapituluak)	261.937	662.274	153
Aurrekontu-emaitza doituak	2.590.968	2.387.244	-8
Diruzaintzako gerakina, guztira	267.262	185.055	-31

Bilakaera horretatik, honako hau nabarmendu nahi dugu:

- 2023ko aitortutako eskubideak % 5 handiagoak izan ziren 2022koak baino; nagusiki, transferentzia arruntak % 6 areagotu zirelako.
- 2023an aitortutako betebeharrak aurreko ekitaldikoak baino ehuneko zortzi gehiago izan ziren, langileria-gastuen eta inbertsioen hazkundearen ondorioz.
- Foru Ogasunari sartu beharreko zenbatekoa, indarreko legediarekin bat, aurrekontu-emaitza doitu da, 2,4 milioi euro egiten duena; aurreko ekitaldikoa baino ehuneko zortzi txikiagoa, zehazki.
- 2023ko diruzaintza-gerakina 0,18 milioikoa izan zen guztira; ehuneko 31ko beherakada da 2022koarekin alderatuta.

4.2 KUDEAKETA-ALORRAK

4.2.1 Langileria-gastuak

Nafarroako Parlamentuaren langileria-gastuak 8,19 milioi eurokoak izan ziren 2023an, ehuneko 93ko betetze-mailarekin. Ekitaldian aitortutako betebeharrak guztien ehuneko 61 egiten dute.

2022ko ekitaldiarekin alderatuta, langileria-gastuek ehuneko zortzi egin zuten gora, jarraian xehakaturik azaltzen denez:

Kontzeptua	Aitortutako betebeharrak (ABG), 2022	ABG, 2023	2023/2022 aldea (%)
Lehendakaritzaren ordainsariak	76.632	78.931	3
Parlamentarien ordainsariak	2.649.797	2.796.419	6
Parlamentari ohien ordainsariak	-	63.353	
Parlamentarien dietak	78.363	59.561	-24
Lehendakaritzako Kabineteko behin-behineko langileen ordainsariak	100.545	103.274	3
Behin-behineko langileen ordainsariak. Beste kargudun batzuk	483.099	501.272	4
Langile funtzionarioen ordainsariak	1.633.630	1.803.848	10
Aldi baterako lan-kontratadunen ordainsariak	1.179.825	1.144.050	-3
Gizarte Segurantza	792.800	883.059	11
Parlamentarien Gizarte Segurantza	537.388	605.106	13
Beste hobekuntza sozial batzuk	1.917	12.505	552
Parlamentarien aseguruaren prima	16.133	16.133	0
Zerbitzuetako langileen aseguruaren prima	23.553	24.199	3
Epaiak betearaztea		99.173	
Guztira	7.573.682	8.190.884	8

Aldaketa esanguratsuenak berrikusi eta aztertu ditugu, eta egiaztatu dugu behar bezala oinarrituta eta dokumentatuta daudela.

Plantilla organikoa

2023ko apirilaren 5eko 54. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren 2023. urterako plantilla organikoa eta 2022ko abenduaren 31n indarrean zegoen langile-zerrenda.

Honako hauek dira lanpostuak, plantilla organikoaren arabera:

Saikapena	2023/12/31
Funtzionarioak ³	60
Behin-behineko langileak	3
Talde parlamentarioetako laguntzaileak	13
Guztira	76

Funtzionarioen lanpostuen egoera koadro honetan ageri dena zen 2023ko abenduaren 31n:

	2023/12/31
Plantillako lanpostuak	60
Beteta/Plaza erreserbatuta	36
Hutsik	24
Lanpostu hutsak, guztizkoaren aldean (%)	40
Bete diren lanpostu hutsak	21
Aldi baterako betetako lanpostu hutsak (%)	88

Behin-behinekotasunaren indizea ehuneko 37koa da, behin-behinekoz betetako lanpostuen eta modu finkoan nahiz aldi baterako betetako plaza guztien arteko zatidura gisa kalkulatua; tasa horrek agerian uzten du behin-behinekotasuna handia dela. 24 plaza huts daude, eta horietatik, ehuneko 88 behin-behinekoz beteta daude.

Aldi baterako enplegua egonkortzeko prozesuaren egoera aztertu dugu abenduaren 28ko 20/2021 Legean, enplegu publikoan aldibaterakotasuna murrizteko presako neurriei buruzkoan, jasotako betekizun eta epeen arabera (aurrerantzean, EPAMPNL). Honako alderdi hauek nabarmendu nahi ditugu:

- Bete berri dira 2023ko ekitaldia itxi baino lehen deitutako sei plaza; horietako bi oposizio-lehiaketaren prozeduraren bidez bete dira, eta beste lauak, merezimendu-lehiaketaren prozeduraren bidez.
- Parlamentuko bi funtzionariok plaza eskuratu dute egonkortze-prozesuan, merezimendu-lehiaketaren sistemaren bidez.
- Egonkortze-prozesuan plazarik eskuratu ez duten hiru pertsona kontratudunentzako ordain ekonomikoa 99.174 €-koa izan da.

Egiturazko aldibaterakotasunaren tasa EPAMPNLn aurreikusitako ehuneko zortzitik behera kartzatze aldera, egindako egonkortze-prozesuarekin ez baita hori lortu, 23 plazatarako deialdiak izapidetu dira 2023an eta 2024an. Txosten hau egin denerako, bukatuta daude deialdi horietako bi.

³ Nahiz eta plantillan jasotzen den 61 plaza daudela, funtzionarioen zerrendan esaten da 60 plaza daudela.

2023ko abenduaren 31n, honako langile publiko hauek ziharduten lanean Nafarroako Parlamentuan:

Langileak	2023/12/31
Funtzionarioak	30
Plaza hutsak betetzen ari diren administrazio-kontratudun langileak	20
Beste egoera batzuk estaltzen ari diren administrazio-kontratudun langileak (burutzak, prestakuntza, beste batzuk)	7
Guztira	57

Koadro horri dagokionez, esan behar da ez direla sartu ez behin-behineko langileak ez talde parlamentarioen laguntzaileak.

2023an, karguoste-ordainsariak eman zitzaizkien zenbait parlamentari ohiri 63.353 euroko zenbatekoz.

Antzinasuna aztertu dugu langileen lagin batean, eta ondorioztatu dugu, oro har, langileei kontzeptu horrengatik emandako ordainsariak bat datozela egoera administratiboekin eta araudian ezarritakoarekin.

Egiaztatu dugu hil batean jasotako ordainsariak bat datozela lege ezarritakoarekin.

Prestakuntzarako igoerako postuen betetzea aztertu dugu, eta egiaztatu dugu hiru pertsonak zortzi urtez baino gehiagoz baliatu dutela aukera hori, arauan aurreikusitako bost urteko alditik gora; dena den, zerbitzuaren beharrak zirela-eta ohiz kanpo gaitu zituztelako gertatu da hori, postu horietarako onetsitako zerrendetan ez baitzegoen beste hautagairik.

Konpentsatzeko dauden langileen aparteko orduen poltsa aztertu dugu. Honako alderdi hauek nabarmendu nahi ditugu:

- Langileen hitzarmenean aurreikusitakoaren arabera, lanaldi arruntetik gora lanean emandako ordu bakoitza ordu bat eta 45 minutuz konpentsatu behar da, betiere, ez bada jaiegunean izan.
- 2023/12/31n, 36 pertsonak zituzten ikuskatutako ekitaldia baino lehenago sortutako orduak, eta pertsona horietatik 6k 150 ordutik gora zituzten.
- 2024ko ekitalditik aurrera, aparteko orduen kopurua ezin da izan urteko 70 ordutik gorakoa, eta 6 hilabeteko epean baliatu behar dira konpentsazio-orduak.

Txosten honetako "Gomendioen jarraipena" izeneko atalean horri buruz esandakoaz gain, honako hau gomendatzen dugu:

- *Aparteko orduen onartutako gehieneko kopurua gainditzen duten langileekin adostea arazoizko denbora-tartean konpentsatuko dituztela ordu horiek atsedeen-orduen bidez, egoera erregularizatze aldera.*

4.2.2 Ondasun eta zerbitzuen gastu arruntak

Parlamentuaren ondasun eta zerbitzuen gastu arruntak 1,5 milioi eurokoak izan ziren, eta gastu guztien ehuneko 11 egiten du horrek; haien betetze-maila behin betiko kredituen ehuneko 56koa izan zen. Kapitulu honetako gastuak 2022koak baino ehuneko zazpi txikiagoak izan ziren, batez ere energia-horniduren prezioa murriztu zelako.

Hona hemen gastu eta zerbitzuen gastu arrunten kontzeptu nagusiak, eta haien eta aurreko ekitaldikoaren arteko alderaketa:

	ABG, 2022	ABG, 2023	23/22 aldea (%)
Garbiketa eta txukuntasuneko zerbitzuak	328.064	345.782	5
Ekipamendu eta programa informatikoen konponketa eta mantentzea	129.830	191.836	48
Informazio-sistemak	165.239	174.264	5
Egindako beste lan batzuk	209.999	155.599	-26
Hornidurak	262.938	145.428	-45
Makineria, instalazioak eta lanabesak konpontzea	92.310	86.203	-7
Eraikinen konponketa eta mantentzea	52.693	53.921	2

“Ekipo eta programa informatikoen konponketa eta mantentze lanak” gastu-kontzeptua aztertu dugu.

Egindako lanaren konklusioa da gastuak, oro har, zuzen kontabilizatuta eta justifikatuta daudela, eta araudian ezarritako epean ordaindu direla.

4.2.3 Transferentzia arruntetako gastuak

Parlamentuaren transferentzia arruntetako gastuak 3,18 milioi eurokoak izan ziren, eta gastu guztien ehuneko 24 egiten du horrek; haien betetze-maila behin betiko kredituen ehuneko 95ekoa izan zen. Kapituluko honetako gastuek ehuneko hiru egin zuten gora 2022ko ekitaldikoekin alderatuta.

Talde parlamentarioei esleitutako diru-kopuruak berrikusi ditugu: 2,95 milioi euroko zenbatekoa izan zuten, eta kapituluko gastuen ehuneko 93 da hori. Hona hemen xehetasunak:

Talde parlamentarioa	X. legegintzaldia	XI. legegintzaldia
Navarra Suma talde parlamentarioa	439.082	-
Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioa	-	400.865
Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioa	281.619	329.490
Geroa Bai talde parlamentarioa	227.972	232.542
EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioa	198.311	268.040
Podemos-Ahal Dugu Nafarroa foru parlamentarien elkarteak	100.172	-
Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioa	-	135.215
Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioa	-	134.678
Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoa	85.341	-
Vox Nafarroa foru parlamentarien elkarteak	-	117.777
Legegintzaldia, guztira	1.332.496	1.618.608

Egiaztatu dugu talde parlamentarioei ordaindutako zenbatekoa bat datorrela Mahaiak 2023ko urtarrilaren 16an hartutako erabakiaren bidez onetsitako ordainsari ekonomikoekin; 2,5eko iguera izan du aurreko urtekoarekin alderatuta.

Talde parlamentarioek dirulaguntzen kontabilitatea aurkezteko betebeharra dute; bada, betebeharrak horrek 2023an izan duen betetze-mailari dagokionez, honako hau egiaztatu dugu:

- Talde parlamentarioek bete dute garai eta modu egokian informatzeko betebeharra.
- Kontu-hartzailatza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuak manuzko txostena egin du.
- 2024ko maiatzaren 13an, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak betetzat eman zituen aplikatzen den araudian eskatzen diren izapideak, eta txostena Parlamentuaren webgunean eta Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea agindu zuen.

Talde parlamentarioek alderdi politikoei egiten dizkieten ekarpenei dagokienez, Kontuen Ganberak, Parlamentuaren 2021eko kontuei buruzko txostenean, gomendatu zuen talde parlamentarioen eta alderdi politikoen arteko lankidetzaren harremanak hitzarmenen bidez formaliza zitezela.

2023ko urriaren 2an, Mahaiak erabaki zuen talde parlamentarioen ordainsariei buruzko arauak aldatzea, eta kasuan kasuko hitzarmena eskatzen da 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera.

Xede hauek aurkeztu dituzte talde parlamentarioek:

Talde parlamen- tarioa	Zenbate- koa	Lotutako entitateei intsuldatzea (8/2007 LO, 2.e art.) ⁴	% ⁵	Funtzionamendu, anto- lamendu eta jarduera arrunteko gastuak	%	Emai- tza	Gastu finantz.	Ekitaldiko emaitza
X. legegintzaldia								
Navarra Suma talde parlamentarioa	439.082	403.931	92	41.228	9	-6.078	-	-6.078
Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoa	85.341	90.762	106	1.080	1	-6.501	-	-6.501
Podemos-Ahal Dugu Nafarroa foru parla- mentarien elkarte	100.172	101.286	101	977	1	-2.091	-	-2.091
XI. legegintzaldia								
Unión del Pueblo Na- varro talde parlamen- tarioa	400.865	376.000	94	19.000	5	5.866	-	5.866
Nafarroako Alderdi Popularra talde parla- mentarioa	135.215	113.892	84	20.144	15	1.179	-	1.179
Contigo Navarra-Zu- rekin Nafarroa talde parlamentarioa	134.678	111.805	83	539	0	22.334	-	22.334
Vox Nafarroa foru parlamentarien elkar- tea	117.777	71.843	61	3.146	3	42.788	-	42.788
X. eta XI. legegintzaldiak								
Nafarroako Alderdi Sozialista talde parla- mentarioa	611.110	611.000	100	312	0	-203	-	-203
EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioa	466.351	465.400	100	-	-	951	989	-38
Geroa Bai talde parla- mentarioa	460.514	460.517	100	-	-	-3	-	-3
Guztira	2.951.104	2.806.436	95	86.427	3	58.241	989	57.252

Bestalde, adierazten dugu Kontu Auzitegiari dagokiola talde parlamentarioek alderdi politikoei egindako ekarpenak fiskalizatzea.

Halaber, honako aurrekontu-partida hauen betetzea aztertu dugu, bai eta aurreko ekitaldiarekin alderatuta izandako aldakuntza ere:

Kontzeptua	ABG, 2022	ABG, 2023	Aldea (%) 2023/2022
Beste hitzarmen batzuk	42.528	33.144	-22
Garapen- eta elkartasun-jardueretarako dirulaguntza	94.396	80.000	-15

Egiaztatu da ezen, orokorrean, berrikusitako gastuak zuzen kontu hartuta, justifikatuta eta kontabilizatuta daudela, eta dirulaguntzak haiei buruzko arauetan ezarritakoaren arabera ordaindu zi-rela.

⁴ Alderdi politikoei intsuldatzea.

⁵ Kasu batzuetan % 100etik gorakoa da aurreko ekitaldietako soberakinak zeudelako.

4.2.4 Kontratazioa

Honako kontratu hauen adjudikatze-prozedura eta betetzea berrikusi ditugu:

Kontratua	Esleipen-prozedura	Lizitatuak kopurua	Adjudikazioaren zen- batekoa (BEZik gabe)	Behera- pena (%)
Catering-zerbitzuaren kontratazioa	Irekia, arrazoi sozialen- gatik erreserbatua (2/2018 KPFLren 36. art.)	2	20.593	32,7
Argazkigintza-zerbitzuaren kontratazioa	Irekia	2	24.920	4,7
Administrazio elektronikoaren horniduraren kon- tratazioa	Irekia	2	247.333	23,2
52 ordenagailuren horniduraren kontratazioa	Irekia	1	70.200	0,1
Kontratua	Esleipen-prozedura	Eskaintza kopurua	Fakturatutako zenba- tekoa (BEZik gabe)	Behera- pena (%)
LTO zinten liburutegia mantentzea eta euskarria berritzea	Munta txikiko kontratua	3	3.868	-
Programa informatikoak mantentzea	Munta txikiko kontratua	0	1.615	-
IDITE aplikazioaren erabilera-lizentzia berritzea	Munta txikiko kontratua	0	2.179	-

Oro har, aipatu kontratuen espedienteak Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen (aurrerantzean, KPFL) eta Parlamentuaren Erregelamendu Ekonomiko-finantzarioaren arabera izapidetu dira. Haietatik datozen gastuak onetsita, fiskalizatuta, justifikatuta eta zuzen kontabilizatuta daude, eta araudian ezarritako epeetan ordaindu dira. Halere, honako hau aipatu behar dugu:

- Administrazio klausulen agirietan ez da exekuzio-baldintza berezirik ezarri, eta espedienteetan ez da jaso halakorik ez ezartzea justifikatzeko arrazoirik.
- Espedienteetan ez da jaso kontratuaren balio zenbatetsia zehaztearen arrazoizkotasunik.

Txosten honetako "Gomendioen jarraipena" izeneko atalean horri buruz esandakoaz gain, honako hau gomendatzen dugu:

- *Espedienteetan jasota uztea kontratuaren balio zenbatetsia zehaztearen arrazoizkotasuna.*

4.2.5 Transferentzia arruntengatiko eta kapital-transferentziengatiko diru-sarrerak

Transferentzia arruntengatiko eta kapital-transferentziengatiko diru-sarrerak, hurrenez hurren, 14,93 eta 0,76 milioi eurokoak izan ziren, diru-sarrera guztien ehuneko 99, hain zuzen ere; haien betetze-maila ehuneko 100ekoa izan zen. Koadro honetan, 2022ko ekitaldiko diru-sarreretikiko konparazioa jaso da:

Kontzeptua	AEG, 2022	AEG, 2023	Aldea (%) 2023/2022
Transferentzia arruntak	14.135.197	14.934.902	6
Kapital-transferentziak	776.205	758.200	-2

Egiaztatu dugu aurrekontu-informazioa koherentea dela Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan jasota dagoenarekin.

ERANSKINA. NAFARROAKO PARLAMENTUAREN ORGANIGRAMA



